

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Alkatearen eginkizunen eskuordetze ebazpena

Alkatearen 2019ko abuztuaren 6ko 75 zenbakiko Ebazpenez, ondoren hitzez hitz jasotzen den xedapen zatia onartu zen:

“LEHENENGOA. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 23.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Virginia Bravo Sáez de Urabain bigarren alkateordearengan uztea alkatearen eginkizun guztiak 2019ko abuztuaren 26tik 30era bitartean, biak barne, alkatea oporretan egongo baita.

BIGARRENA. Eskuordetzearen barne daude zuzentzeko eta kudeatzeko ahalmena, bai eta kasuan kasuko administrazio prozedurak ebaztekoa ere, hirugarrenei eragiten dieten administrazio egintzak hartuta.

HIRUGARRENA. Organo eskuordeak, gerora, eta betiere eskatzen zaionean, aipatutako epean egindako kudeaketaren eta hartutako xedapenen berri eman beharko dio alkateari, eta erabaki garrantzitsuak izanez gero, aldez aurretik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duenak, 115. artikuluan xedatzen duenez.

LAUGARRENA. Dekretu honen bidez eskuordea izendatzeko, organo eskuordearen onarpena behar da, eta ulertuko da isilbidez eman duela onarpen hori baldin eta alkateari ez bazaio eskuordetzearen kontrako adierazpenik idatziz aurkezten ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hiru egun balioduneko epearen barruan.

BOSGARRENA. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta horren berri emango zaio udalbatzari egiten duen lehenengo bilkuran.

SEIGARRENA. Ebazpen honetan berariaz aurreikusi ez den guztian zuzenean aplikatuko dira arau hauetan xedatutakoak: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren erregelamendua onesten duena, eskuordetzei buruz ezarritakoei dagokienez.”

Burgelu, 2019ko abuztuaren 6a

Alkatea

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA